

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	Espedientea:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2023WDIZ0010
	Sarrera-erregistroa.:	004024 - 2023/12/26
	Dekretu-zk.:	302/ 2024
	Titularra:	NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA
	Ordezkarria:	JESUS MARIA REPARAZ LEIZA
	Gaia:	NAFARROA OINEZ: 2024ko dirulaguntza

302/2024 ALKATE DEKRETUA

Nafarroa Oinez 2024 ekintza burutzeko, NAFARROA OINEZ FUNDAZIOAK (G71302871), Ibarra udalari dirulaguntza eskaera luzatu zion 2023ko abenduaren 26an egindako eskaeran (erregistro zenbakia 4024).

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Nafarroan euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen du ekintza horrek.

Ibarra Udala bat dator Nafarroa Oinez ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Nafarroa Oinez.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Nafarroan ez dagoelako euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen duen beste festarik, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko diru-laguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.01 diru-partida .

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakunde Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz laguntzea euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen duen Nafarroa Oinez 2024 proiektua.

BIGARRENA.- Aipatu dirulaguntza 1.000 €koa izango da eta Nafarroa Oinez 2024 egitasmoa antolatzen duen NAFARROA OINEZ Fundazioari (G71302871) ordainduko zaio ES6130350190191900027315 kontu korrontean

HIRUGARRENA.- Aipatu kopurua 2024ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.01 2024 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administratziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen

BOSGARRENA.- Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Nafarroa Oinez 2024 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen:

a. Jardueraren memoria, diru-laguntza jaso duen ekintzarena.

b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko egin beharra ez bada betetzen, edo modu desegokian

	Espedientea:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2023WDIZ0010
	Sarrera-erregistroa.:	004024 - 2023/12/26
	Dekretu-zk.:	302/ 2024
	Titularra:	NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA
	Ordezkarria:	JESUS MARIA REPARAZ LEIZA
	Gaia:	NAFARROA OINEZ: 2024ko dirulaguntza

betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

BEDERATZIGARRENA.- Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2024ko maiatzaren 27an

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023WDIZ0010-Dekretua/Decreto ()